

Kalte pertsonalak izan dituzten familia unitateei laguntzak

Zein laguntza-mota?

- Katastrofe edo hondamendi publikoek eragindako **heriotzagatiko** laguntzak.
- Katastrofe edo hondamendi publikoen ondorioz, **ezintasun iraunkor absolutua** aitortuz gero.

Zeintzuk dira onuradunak?

Zeintzuk dira baldintzak

- Familia-unitate edo bizikidetzaren kidea, ezintasun iraunkor absolutua aitortu badiote.
- Hildakoaren ezkontidea, legez bananduta ez badaude, edo hildakoarekin bizi izan den pertsona.
- Hildakoaren adingabeko seme-alabak.
- Hildakoaren adin nagusiko seme-alabak, betiere bere mendekotasun ekonomikopon badaude.
- Aurreko ataletan aipatutako pertsonarik ezean, hildakoaren gurasoak, betiere bere mendekotasun ekonomikopon badaude.

Etxebizitzetan edo etxeko tresnetan izandako kalte materialak arintzeko laguntzak

Zein laguntza-mota?

- Etxebizitza guztiz **hondatzea**.
- Etxebizitzaren **egitura** ukitu duten kalteak.
- Etxebizitzaren **egitura ukitu ez duten** kalte arinagoak.
- Behar-beharrezkoak diren **etxeko tresnetan** kalteak izatea.

Zeintzuk dira onuradunak?

Familia-unitateak edo bizikidetzaren unitate ekonomikokoak.

Zeintzuk dira baldintzak?

- Kaltea bere ohiko etxebizitzan sortu behar izan da.
- Bere diru-sarrerak ezarritako mugen barruan egon beharko dute.
- Gertaera katastrofikoak, modu zuzenean eta erabakigarrian, sortu izan behar du kaltea.
- Etxebizitzan izandako kalte materialen kasuan, familia-unitateko kideren batek etxebizitzaren jabetza edo titulartasun publikoa frogatu beharko du.
- Asegurua izanez gero, kalte-ordainak ez du zertan estali eragindako kalteen koste osoa.

Toki korporazioei laguntzak

Zein laguntza-mota?

- Atzera ezinezko larrialdietan egindako jardueren ondorioz Toki Korporazioek egindako **larrialdigastuengatik**, larrialdia gertatu den une berean edo gertaera eragile horiek amaitu eta berehala egin direnak, betiere, baldin eta bere helburua pertsonen bizitza eta segurtasuna bermatzeko funtsezko eta ezinbesteko zerbitzu publikoen funtzionamendua bada.

- **Lehorteak eragindako larrialdietan edateko ura hornitzeagatik**, biztanleriaren oinarrizko beharrak bermatzeko.

Zeintzuk dira onuradunak?

Zeintzuk dira baldintzak?

- Baliabide urritasuna egiaztatzen duten Toki Korporazioek. Horretarako, Korporazioak egindako gastuen zenbatekoak bere aurrekontuetan ezarritako zenbatekoaren %3a gainditu behar du (II. atala).

Agintari eskudunak ondasun edo zerbitzuak egiteko eskatzen dien pertsona fisiko edo juridikoentzako laguntzak

Zein laguntza-mota?

Agintari eskudunak larrialdi egoeratan ondasun edo zerbitzuak egiteko eskatzen dien pertsona fisiko edo juridikoek **eragindako gastu edo kalteen zenbateko osoa** lor dezakete.

Zeintzuk dira onuradunak?

Agintari eskudunak eskatu ondoren, **babes zibilaren alorrean eta Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan**, prestazio pertsonala edo ondasunezkoak egin dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

Bestelako laguntzak

- **Jabeen Erkidegoentzako laguntzak**
- **Industria-, merkataritza- eta jabeen establezimenduentzako laguntzak**

Zeintzuk dira onuradunak?

- Jabetza horizontalaren araubidean dauden **Jabeen Erkidegoak**, erabilera komuneko elementuak ukitu dituzten kalteentzat.
- Establezimenduen titularrak diren **pertsona fisiko edo juridikoak**, ondorio fiskaletarako behar bezala erregistratuak daudenak, eta gehienez ere 50 langile dituztenak.

Zeintzuk dira baldintzak?

Ezinbesteko betebeharra izango da establezimenduak **aseguru-poliza kontratatua izatea** eta poliza hori indarrean egotea gertaera eragileak gertatu ziren unean, eta kaltea gertatu izana aparteko arriskuen aseguruan edota aseguru-polizaren ohiko estalduran sartuta **EZ DAGOEN** arrisku batengatik.



HONAKO HELBIDE HONETAN AURKI DITZAKEZU LAGUNTZA-MOTA HORIEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO GEHIAGO:

www.proteccioncivil.es/ayudas/catastrofe-o-siniestro/normativa

Non eta noiz aurkeztu
eskabideak?

EPEA

Interesdunek **hilabeteko** epea izango dute eskabideak aurkezteko, larrialdia eragin duen gertaera amaitzen den egunaren **biharamunetik aurrera** kontatzen hasita.

TOKIA

- 1. Pertsona juridikoak** eta **erakunde publikoak** Administrazio Publikoekin komunikatzeko, baliabide elektronikoak erabiltzera behartuta daude (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua).
- 2. Pertsona fisikoak** Administrazio Publikoekin komunikatzeko, baliabide elektronikoak aukeratu dezakete edo ez.
- 3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen** urriaren 1eko 39/2015 Legearen "Erregistroak" deritzen 16. artikulua, doakienek Administrazio Publikoetara zuzentzen dituzten agiriak non aurkez daitezken ezartzen du.

Ba al daude eskabideak
egiteko ereduak? ... Bai

Web orri honetan eskura daitezke:

<http://www.proteccioncivil.es/ayudas/catastrofe-o-siniestro/normativa>

Web orri honetan dokumentazioa eta ondorengo gaiak buruzko **informazio zehatza** lortu ahal izango dituzu:

- Diru-laguntza mota.
- Onuradunak.
- Baldintzak.
- Eskabideak aurkezteko formulario normalizatuak.
- Informazio baliagarria

Diru-laguntzak larrialdi edo katastrofe izaerako egoera batetik i eratorritako beharrak kontuan hartuta eta laguntzak emateko prozedura ezartzen da.

(Martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuan
ezarritako laguntzak emateko errejimen orokorra)

Laguntza hauek **honako hauetara zuzenduta daude**:

- **Kalte pertsonalak** izan dituzten **familia-unitateak** edo bizikidetzak-unitate ekonomikoak.
- Etxebizitzetan edo behar-beharrezkoak diren etxeko tresnetan **kalte materialak** izan dituzten **familia-unitateak** edo bizikidetzak-unitate ekonomikoak.
- **Toki Korporazioak**, egindako larrialdi-gastuei aurre egiteko.
- Jabetza horizontalaren araubidean dauden **Jabeen Erkidegoak**, erabilera komuneko elementuak ukitu dituzten kalteentzat.
- Industria-, merkataritza- edo zerbitzu- **establezimenduen titularrak**, ondorio fiskalarako behar bezala erregistratuak daudenak, eta gehienez ere 50 langile dituztenak.
- **Agintari eskudunak eskatu ondoren**, babes zibilaren alorrean eta Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan, prestazio pertsonala edo ondasunezkoak egin dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

Dokumentazioa eta informazio gehiago honako helbide honetan:

www.proteccioncivil.es
"Ayudas y Subvenciones"

Zer da larrialdi egoera bat, laguntza hauek emateko orduan?


Ezohiko arrisku kolektibo larri eta gertu baten ondorioz pertsona talde bati bat-batean gertatutako behar-egoera. Halako egoeren jatorria eta ezaugarriak zein diren kontuan hartuta, saihestezinak edo aurreikusezinak izaten dira. Larrialdi egoerak katastrofe izaerako egoerak bihurtzen dira honako kasu hauetan: arriskua eguneratu eta eragin duen gertakaria gertatu ondoren, pertsona talde horren bizi baldintzak aldatzen direnean, eta ondasun eta zerbitzu askori eragiten dieten kalte larriak gertatzen direnean.



DIRU-LAGUNTZAK

larrialdi edo katastrofe izaerako egoera batetik
eratorritako beharrak kontuan hartuta

(Martxoaren 18ko 307/2005 Errege Dekretuan ezarritako
laguntzak emateko errejimen orokorra)



DIRECCIÓN GENERAL
DE PROTECCIÓN CIVIL
Y EMERGENCIAS



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DEL INTERIOR